

Abarrak

G O R K A B E R E Z I A R T U A

Brabo, Sorrentino

Il Divo. Zuzendaria: Paolo Sorrentino. Aktoreak: Toni Servillo, Anna Bonaiuto. Italia, 2008. 110 minutu.



Dagoeneko ez duzu *Il divo* zinema aretoetan aurkituko, baina badaezpada gomendatu egin nahi dizut, Interneten maltzurkeriaz filmak deskargatzen dituenetakoa izango zaren esperantzaz.

Giulio Andreotti erretratatzeara: ahor Paolo Sorrentino zer egiten saiatu den film honekin. Ez hori bakarrik; erretratuan berdin sartu nahi izan ditu ia mende erdiz Italiako politikaren hariak mugitu zituen gizontxoaren jarrera domestiko bitxiak, eta mafiarekin zeukan harremana; berdin erakutsi nahi izan ditu haren emazte xaloarekin izandako elkarrizketak, eta Andreottik ustez agindu zituen hilketak.

Gizon xeble bat erakutsi digu pelikulak. Hitz gutxikoa, erabakietan ziurra, boterearen oreka mantentzeko edozer gauza egiteko prest legokeena –Aldo Mororen hilketaz, adibidez, ematen den bertsioa honakoa da, gutxi asko: Andreottik eta Francesco Cossigak utzi egin zutela hilketa hori gerta zedin–.

Filmaren momentu gogoangarrietako batean Andreottik bere kontzientzia garbitzen du ispiluaurrean, emaztearekin hitz egiten ariko balitz bezala: “Ez dakizu zenbatetan jokatu behar den gaizki, egin ahal izateko ongia”.

Italiako historia politikoan oso jantzia ez dagoenak, beharbada, zailtasunak izango ditu momentu batzuetan filmaren haria jarraitzeko. Ez du lagun-tzen kontakizuna *flash-back* eta *flash forward*z betea egoteak. Baina zalantzarik gabe, azken urteotan hain modan dauden *biopic*en artean ikusi dudana onena da *Il divo*. Eta asma nezake zergatik: helburua ez delako pertsonaia historiko baten bizitzako beltzak zuzitzea, izaki mitologiko antzeko bat sortuz; helburua, hemen, pertsonaia erreal bat modu sinergiarrian fikzionatzea da. Eta ondo eginga dago lana. Horregatik, berriro diot: brabo Sorrentino!

Bidean

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

09

www.nafarroakotxapelketa.com

Finalurrekoa:

Martxoak 7

Antsoain

Antzokia

17:30

Julio Soto

Erika Lagoma

Ander Fuentes “Iturri”

Iñaki Aleman

Xabier Legarreta “Arano”

Juan Joxe Zubieta “Etxabe”

Nafarroako

Bertsotzale

Elkartea



Laguntzailea:

argia